

Sagardo-Txapelketa

Aspalditxotik sagardo-txapelketa pamañu bat zegon iragarrita edo anuntziatuta Astigarraga'n. Nun leku egokia-gorik? Sevillan'n zezen-festa ta Triana bezela baita Astigarraga'n sagardo.

Agorraren 20'an, larunbatez, bertako prontoi ederra paldarrez beteta zala ospatu zan dalako txapelketa ori. Ura giroa, jaunaki Irureun lagunetik gora exeri giñan apaltzen.

Gipuzkoa'ko amairu eritako ogei ta amar sagardo-egilleak artu zuten parte. Zorionez, badaukagu egarriak nun kendua. Arritzekoa ez danez, Astigarraga izan zan ordezkari geienekoa, amaika etxerekin. Urrena Ernani, bos-terrekin. Urnieta'k jarraitzen zion, irurerekin. Gaiñontzekoak binaka ta bañaka zituzten. Beraz, garbi dago putzurik aundienak nun dauden. Ez ditezela agortu.

Bertsolari, soñu-jotzaille ta gaiñerako antolatzaileak kenduta, apaldarrak izan ziran juez. Txandan-txandan etxe bakoitzaren sagardoa ekartzen zuten maiera. Andik tragoska bat egin da puntuak eman. «Bata ohea zegok» eta «Bestea etzegok ainbeste», eztabaida orrek giroa asko alaitu ta pizten du. Amaika aldiz esan dedana: euskalduna txapelketa-zale dala.

Etxe danai puntuazioa ondo emate ezkeru, apaldar bakoitzak etxeak ainbeste trago egin bearra zeuzkan. Apal

aurretik egarri antxean giñanak ere, bapo ase giñana.

Juez apaldar oien emankizuna au izan zan: lenengo iru sariak Astigarraga'n gelditu ziran. Lendabizi, Sarasola; bigarren, Gurutzeta; ta irugarren, Irigoien.

Izan zan beste juez-talde bat: sagardo-egilleak berak aukeratu bear zuten zein zan onena. Auen erabakia Ernani'ko Eizmendi'rentzat izan zan. Gaiñontzekoen puntuazioak gordean gelditu ziran.

Jaialdi artan izan gabeko edozeiñek galde lezake:

-Zer moduzko sagardoak edan dituzte?

Ara nere erantzuna:

-Klase askotako sagardoak. Bakoitzak geuren gustoak ditugu. Baiña erabat jota, geienak oso onak. Garai bateko bizitasun ura ez dute gaurko sagardoak. Gaurkoak edan errazagoak dira. Uste det ortan irabazi egin dutela.

Sagardo-egille zaarrai ere eman zitzaizen erregali bana omen-gisara.

Sebastian Lizaso, Lazkano, Mañu-korta ta nik kantatu genitun bertsoak. Naiko trikiti-ots ere bazan. Jendeak egin zitun anka-joko ederrak. Itz batean esateko, erri-giroko billera zoragarria.

Zorionak antolatzaile danai biotz-biotzez. Berdin irabaztunai. Ta Astiga-

rraga'k jarrai dezala Astigarraga izaten.

Sagardo-egille batzurekin itzegiteko zoria izan nun. Joan dan urteko sagardotik dezente omen daukate sobratua. Aurten, joan dan urteko erdia egingo omen dute.

Nere iritiz, orren arrazoi nagusia: ardo baiño askoz garestiago jarri zaigula sagardoa; ta gauza garestia sobratzeko arriskua dauka.

Bestetik, propaganda gutxi egiten zaio sagardoari. Sagardoa baiño edari txarrago pranko ezagutzen da mundu guztian propagandaren bidez.

Emengo txiri-denboran, ezagutzen ez duten leku oietatik onuntz jendea autobusetan ekartzea ez ote litzake mesedegarri izango? Zerbez ta txanpain-etxeak badaude ori egiten dutenak. Sagardoarekin zergatik ez beste orrenbeste?

Txapelketa batean bizi gerala ez dezagun aztu. Ta atzean gelititzen danak, izango du naiko lan.

Astigarraga'n kendu genitun gose eta egarriak, sagardo orrek berekin ditu oso grazi ugariak.

Pixa eginda bertsoak kanta, bromazko zirikaldiak, Euskalerriko puskek ditugu gure sagardotegiak.

Txomin GARMENDIA

El Diario Vasco